

HIRUGARREN MUNDUKO

HERRIALDEEN

PROIEKTUA: JAIO ETA

(ERA)HIL(A)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Mikel Cortès i Araolaza

Historiako Gradua: 2014-2015eko ikasturtea

Hirugarren Munduko herrialdeen proiektua: jaio eta (era)hil(a). Euskaraz

Tutorea: Susana Serrano Abad. Historia Garaikidea.

AURKIBIDEA

1. Laburpena	3. orr
2. Sarrera	5. orr
3. Proiektu politikoaren sorrera eta lehenengo urratsak: erakunde internazionalak, ideologiak, eta helburuak	6. orr
<i>3.1. Bandungetik Belgradera</i>	<i>6.orr</i>
<i>3.2. 1966ko La Habanako Konferentzia Trikontinentalatik aurrerako aldaketak</i>	<i>10.orr</i>
4. Programa ekonomikoak	13. orr
<i>4.1. Lehenengo urratsak</i>	<i>13. orr</i>
<i>4.2. Arazo ekonomikoak eta NOEI bidea</i>	<i>16.orr</i>
5. Independentziak osteko sistemak politiko eta sozialak	17. orr
6. Inperialismoaren erasoak	21. orr
7. Gogoeta: hirugarren munduko herrialdeen proiektu politikoaren deuseztapenaren zergatiak	23. orr
Bibliografia	26. orr

1. LABURPENA

Metropoliekiko independentzia formala ez da helburua ezta bidearen amaiera. Ideia hau deskolonizatutako berri egin ziren herrialdeek oso argi zeukaten. Hauek askatasun politikoaz gain, askatasun ekonomiko, sozial eta kulturala bilatu egingo zuten. Prozesu hau Bigarren Mundu Gerraz geroztik azeleratu egingo zen, Gerra Hotzaren testuinguruan, non mundu bipolarraren superpotentziek haien influentzia zabaldu nahi zuten gizakien existentzia bera arriskuan jarri (gerra termonuklearraren lasterketa eta psikosia) egiten zuen. Alderdi hauetaz Hirugarren Munduko herrialdeek oso kontziente ziren, horregatik beraiek hasiko ziren bere bide propioa (lehenengo eta bigarren munduen influentziatik at).

Hirugarren Mundua leku bat ez zen; proiektu bat izan zen (da). Kolonialismoari eta Inperialismoari aurre egiteko, hainbat kongresu, itun eta aliantza egin zituzten (Bandung 1955, Belgrad 1961, La Habanako, etab.); eta hauek praktikan jartzeko Nazio Batuen Erakundeak erabiliko zuten oinarri bezala; zeinak herrialde guztien berdintasun eta haien hotserako marko erakundea izango zelarik. Hirugarren Munduko Herrialdeen eskatu egingo zuten munduko errekurtsoen banaketa justuagoa, berdintasun politikoa, herrialdeen eta haien biztanleekiko duintasuna, garapena, etab. Proiektu honetan herrialde asko eta oso ezberdinak parte hartu egin zuten; non ideologi eta munduarekiko ikuspuntu ezberdinak emango ziren.

Baina proiektuak huts egin zuen. Bai inperialismoaren erasoengatik, baita proiektu beraren gabezi estrukturalengatik. Alde batetik, potentzia inperialistak behin eta berriz saiaturiko ziren herrialde hauen proiektuak deuseztatzen, bai eraso politiko-militarrekin, baita eraso ekonomikoengatik (gobernuak, multinazionalak edota nazioarteko erakundeak zeinak Lehen Munduaren kontrolpean egongo zirenak: FMI, Munduko Bankua.. erabiliz). Beste aldetik, Hirugarren Herrialdeen proiektuetan sortu egin ziren gehiegikeriak jasanezinak bilakatuko ziren. Independentzia prozesuan, alderdi eta agente politiko, eta klase ezberdineko paktua egon zen. Behin independentzia eskuraturik, gizarte eta indar korrelazio berriak eraiki beharrean; eliteko kideek boterean mantenduko ziren aparatu estatalak edota armada erabiliz. Hauek “hitza eman” zuten herritarrentzako ongizatea sortu eta mantenduko zutela. Bitartean, oligarkek edonolako oposizioa zapaldu egingo zuten. Estatu berrien eraikuntza bitartean, halako “hitzarmena” mantendu egingo zen; baina 70. hamarkadatik aurrera,

noiz krisi ekonomikoak gogor joko zuelarik nazio ilunei, proiektuen huts egiteak handiak zirenean eta eliteen gogoeta jarrera haien herrialdeekiko (aberriarekiko kontzientzia izatetik, klase kontzientzia izatera aldatu) aldatu zenean; oligarkien eta gainontzeko gizartearen (klase subalternoak) behin betiko dibortzioa emango zen.

Hauek Hirugarren Munduko Herrialdeen proiektuaren apurketa ekarriko zuen. Hau gerrak, miseria eta batere inperialen eta neokolonialen zabalkuntza berri ekarriko zuen.

HITZ-GILTZAK

Inperialismoa, Hirugarren Mundua, (neo)kolonialismoa, Lehenengo Mundua, NOAL, *Nazio Ilunak*.

2. SARRERA

XIX. mendean zehar, iraultza liberalekin, nazionalismoan sorrerarekin, II industri iraultzarekin, eta kapitalismo monopolistarekin batera; kolonialismo garaikidea etorri egin zen. 1880. urtera arte, Europako potentziek esplotazio koloniala ez formala, hau da, merkataritza harremanak ezartzea baina lurralde okupaziorik¹ gabe, jardungo zuten gehienbat. 1880. urtetik aurrera, Berlingo Konferentziatik aurrera, Mendebaldeko potentziek Afrika (eta bigarren maila batean, gainontzeko mundua) banatu egin zuten. XIX. mende luzean zehar horrela mantenduko zen. Gerra arteko garaian, kolonialismoaren kontrako lehenengo mugimenduak eta urratsak emango ziren; eta Bigarren Mundu Gerra eta gero prozesu hauek azeleratu eta independentziak helduko ziren.

Kolonialismoak mila ondorio izan zituen konkistatutako lurraldeentzako (metropolientzako baita). Okupatutako lurraldeen sistemak bertan behera gelditu ziren. Mugak, indar korrelazioak, bizitza mota, jarduera ekonomikoak, gizarte arteko erlazioak, etab. erabat indargabetu ziren. Mugak guztiz aldatu zituzten (kasu batzuetan sortu zituzten non lehen ez ziren existitzen, hau gizarte nomadei zuzenean kalte egiten zien), bertako gizarteek kontuan hartu gabe. Tribu asko banatu zituzten; tribu etsaiak bandera berdin menpean jarri zituzten; haien irizpide kulturalak zapaldu zuten; klase sozial berriak sortu zituzten. Gainera, Mendebaldeko irizpide kulturalak inposatu zituzten: darwinismo soziala, zientifismoa, tradizio idatzia, kulturalismoak, ordenak, etab. Haien ekonomiak guztiz eraldatu zituzten, lehengaien esportazioa eta manufakturen inportaziorako bideratuz (herrialde askotan, jadanik bazeukaten industria, hala nola Indian, Txina.. suntsitu egin zuten).

XX. mendean zehar, askapen nazionalerako mugimenduak sortu egingo ziren. Hauetan bai bertako eliteak eta masak hein handi batean aliantza egin zuten botere kolonialistak botatzeko, era bake bidea edota biolentzia erabiliz.

Behin independentzia lortuta, nazio berri hauek hainbat erronkari aurre egin beharko zuten: herentzia kolonial txarrari buelta ematea, haien gizarteentzako ongizatea eta duintasuna eskuratzea, inperialismo forma berriei aurre egitea, munduan haien iritzia lortzea, askatasun ekonomiko, politiko eta soziala lortzea, etb. Independentzia ez zen

¹ Ramón Villares & Ángel Bahamonde. *Gaur egungo mundua. XIX. eta XX. mendeak*. (Bilbao: Argitalpen zerbitzua EHU, 2004), 123. orr

kolonialismoaren amaira, hasiera baizik. Lan honetan aztertu egingo ditut nola nazio berri hauek saiatu ziren erronka hauek lortzen, eta nola huts egin zuten.

Lan historiografiko sintesi hau hainbat ataletan banatu egin dut. Lehenik eta behin Hirugarren Munduko herrialdeen proiektuaren sorrera, helburuak eta urratsak aztertu egin ditut prisma internazional batetik. Gero herrialde hauen programak ekonomikoak aztertu ditut, zeinak herrialdearen garapenerako helburua zituztelarik. Honen ondoren herrialdeen barne sistema politiko eta sozialak begiratu ditut. Baita *Nazio Ilunek* jasandako eraso inperialistak aztergai izan ditut. Amaitzeko, proiektuaren lanaren ondorioak eta nire gogoeta kritikoak idatzi egin ditut.

3. PROIEKTU POLITIKOEN SORRERA ETA LEHENENGO URRATSAK: ERAKUNDE INTERNAZIONALAK, IDEOLOGIAK, ETA HELBURUAK

3.1. Bandungetik Belgradera

Independentzia berri lortutako herrialde askok mundu bipolarren rolen barruan ez zuten parte hartu nahi. Horregatik, independentzia eskuratu egin zuten lidergo nazionalista hauek Bandung hirian (Indonesiako hiria) batu egin ziren konferentzia egiteko. Bandungeko Konferentziak ez zen bat-bateko asmakuntza edo jaiotza, hau bide luze baten ondorioa izango zen, non bere iturburu ezarriko zen 1927. urtean Bruselaz egin zenaren Inperialismoaren Kontrako Ligaren² bileran. Indonesiako hiri honetan batu egin ziren Asia eta Afrikako 29 estatu independenteak. Hauek Kolonialismoaren formalaren desagertzea ospatuko zuten eta inperialismoaren kontra borrokatzea konprometitu egin ziren. Bilera honetan parte hartzaileen artean batasun puntu bakarra jasandako iragan koloniala eta deskolonizazioa izan zen. Beraz, edonolako kolonialismoaz edota inperialismoenaz kontra egonez gero (eta honek sortu egiten dituen ondorio politiko, ekonomiko, kultural edota arrazistaz), Hirugarren Munduko partaidea bilakatuko ziren.

Bandungeko Konferentzian eztabaidatu beharreko gaiak bost izan ziren (nahiz eta hasiera batean zazpi izango zirela). Ekonomikoa; kooperazio kulturala; giza eskubideak eta autodeterminazioa; herrialde ez autonomoen arazoak; eta bakea eta kooperazio

²Vijay Prhashad. *Las Naciones Oscuras. Una historia del Tercer Mundo*. (Bartzelona: Península, 2012), 71. orr

internazionala³. Hau da, bultzatu egin nahi zuten kanpo (eta barne) ekonomientzako marku berria eta justuagoa, non kapitalak (finantzieroak, materialak, eta teknologiko-teknikoak) konpartitu behar zutelarik; argi zuten kultura indigenak koloso zuriarengatik zapalduak izan zirela, beraz kultura subalternoen berpizkundera bultzatu egin nahi zuten, eta hauen promozioa eta ezagurapenatuko zuten nazio berrien artean; Ginebrako ezarritako giza eskubideak defendatu egingo zuten, herrialdeen autodeterminazioen defentsa eta NBE partehartzearen baharra, zeren eta erakunde honek izan behar zuen gaitasun bakarria arbitro bezala jokatzeko arazoak (nazionalak nahiz internazionalak) konpontzeko; eta honekin batera, bake bidea bakarrik hautatzea soluzio biolentoen aurrean. Hala ere, askatasun ekonomiko, politiko eta soziala lortzeko, bi ikuspuntu nagusi eta kontrajarriak zeuden: gehingoak defendatzen zuen herrialdeen garapena heman egin behar zela egoera interdependiente batean (noski garaira arte izandako formula injustuak ukatuz, eta ineterdependentzia ekitatibo bat egonez; jakinda halakoak eskatzea eragingo zuen Mendebaldearekin konfliktoan egotea); eta gutxiengo batzuek zeinak defendatu egiten zuten duintasuna lortzeko, kapitalismoari uko egin behar zutela eta sisteam sozialista mundiala⁴ eraiki behar zutela.

Halako idealak hain zabalak izateak, ondorio zuzena izango zuen: munduko herrialde askok proiektu honen parte izango ziren. Beraz, ideologi eta ikuspuntu anitz batu egingo ziren, eta akordioetara heltzeko gaitasun eta zailtasun handiak egongo lirateke. Aurki ditzakegu eskumako liderrak (hala nola Turkiako edo Filipinetako liderrak), zentrokoak (Indiako edota Birmaniako liderrak), edota ezkerrekoak (Txina komunista edota Ipar Vietnameko liderrak). Hauetako askok, AEB eta BHrekin itun politiko-militarrak sinatu egin zituzten (Manilako eta Bagdadeko Itunak), askotan haien gobernu nazionalak masen aurrean oso ahulak zirelako (edota SESB izan zezakeen influentzia); beraz, boterea mantentzeko sinatu egiten zituzten (nahiz eta halakoak bigarren mailako ondorioak ekar zedin: hala nola, haien merkatuak ireki behar zutela AEBko multinazionalentzat..). Beste batzuk, aldiz, hasiera batean Bigarren Munduarekin lotura handiagoak zuten.

Bandungen lau lider indar handiak izan ziren: Sukarno (Indonesiakoa), Nehru (Indiakoa), U Nu (Birmaniakoa) eta Nasser (Egiptokoa). Hauek garaira arte izandako

³Carmen Martín de la Escalera, , “La Conferencia de Bandung, sus conclusiones y su posible alcance”, *Revista de Política Internacional*, ISSN 0034-8716, N° 22, 1955: 95 orr

⁴Samir Amin., *El fracaso del desarrollo en África y en el Tercer Mundo. Un análisis político*. (Madril: Iepala, 1994), 54. orr

bizitza politikoa eta karismak, Bandungeko konferentzian norabidea gidatzeak eragin zuen. Hauek Hirugarren Munduko Herrialdeek jarrera neutrala izan behar zutela defendatu egin zuten, eta ez zutela men egin behar Washington edota Moskuko nahiei edota proiektuei. Nahiz eta Bandungen bestelako ideiak eta posturak egon (gogoratu Bandungen bazeudela Manila eta Bagdadeko sinatzaileak), laukote hauena gaineratu egin ziren. Dena den, halako talka ideologikoak ez zuten zapuztu gehiegi 1955eko konferentzia⁵.

Azkenean Bandungetik hainbat konpromiso eta estrategiak atera egin ziren, eta hauetatik azken komunikatua zabaldu egin zen. Lehenik eta behin, kooperazio ekonomikoari buruz hitz egin zen. Lehenik, animatu egin zen herrialde Afro-Asiatikoen arteko erlazio multilateralak egotea (kasu batzuetan, erlazio bilateralak) merkataritza, teknologia eta informazio fluxuak errazteko. Gogoratu, kolonialismo sistemarekin erlazio eta komunikazio sistema gehienak metropolirantz bideratzen ziren. Sylvanus Olympo, Togoko lehen presidentea esan zuenez bezala: “Nire bulegotik deitu dezaket Parisera, baina ezin det Lagosera deitu, non 400 kilometrotara dagoen (...) trenbideak oso gutxitan konektatu egiten dituzte mugak internatzionalak (...) Errepideak eraikiak izan dira kostaldetik barnealdea, baina oso gutxi konektatu egiten dituzte zentro gune ekonomikoak (...)”⁶. Baita adostu egin zen *Fondo Especial de las Naciones Unidas Para el Desarrollo* (SUNFED) eta Korporazio Finantzieroa Internazionala; eta honen barruan sortu egin behar zen *Comisión Asesora Permanente de Naciones Unidas sobre el Comercio Internacional de Mercancías*. Hauek kapitalen fluxuak kontrolatu eta erregulatu eta prezioen kontrol bat ematea egin beharko zituzten. Halakoak arrakasta izateko, nazioen ekonomiak dibertsifikatu eta barne industrializazio autonomoa bultzatzea gomendatu egiten zuten, izandako herentzia kolonial ekonomikoa gainditzeko, hau da, lehengaien metropoliranzko esportazio eta manufakturen inportaziorako sistema koloniala gainditzea. Neurri hauek oso urrun zeuden nazio berriek sozialistatzat kontsideratzeko, baina onartu egiten da bultzada handia egin zutela Lehen Munduarekiko⁷ autarkia maila handiagoa izateko.

Beste alderdi inportantea kooperazio kulturalena izan zen, zeina adostasuna handia eman zena. Herrialde hauek inperialismoen chovinismo kulturala ukatu egin zuten,

⁵ Carmen Martin de la Escalera, “La Conferencia de Bandung, sus ,...,” op. cit., 97. orr

⁶ Martin Meredith, *África. Una historia de 50 años de independencia*. (Espainia: Intermon Ofman, 2011), 191. orr

⁷ Vijay Prhashad, *Las Naciones Oscuras. ,... ,* op. Cit., 90. orr

zeinak kulturak lokalak urratu zituela, eta hauek eragiten zituen ondorioak: arrazismoa, historia kulturalak, mugak barrera gain ezinak bezala, ezarritako arrazako klasismoak, etab.

Bandungetik bake aldeko bultzada eta “konpromiso” handia atera egin zen. Alde batetik, erreklamatu egin zuten NBE bake bermatzaile bezala eta adierazi zuten hau unibertsala izan behar zela, hau da nazio guztiek sartu behar zirela. Herrialde berriei deitu egin ziren NBE osatu eta demokratizatu egin behar zutela. Baita eskatu zuten Palestinaren gatazka era baketsu batean konpontzea. Beste aldetik, munduaren desarmaea eskatu egin zuten, batez ere desarme nuklearra. Armagintza lasterketa berria, mundu bakerako oso arriskutsua zen. Horregatik, 1856. urtean Hirugarren Munduko Herrialdeek NBE desarmerako lau puntuko plana proposatu egin zuten: bi superpotentziak armagintzen esperimentuak bertan behera utzi beharko zuten; arma nuklearren zati bat desegin beharko zuten (lehen urrats bezala); bi superpotentziek NBE konprometitu beharko ziren armagintza nuklearrari uko egingo zutela; eta aurrekontu militarrik publikoak eta gardenak⁸ izan beharko ziren.

Bandungetik ateratako espiritua eta mezuak oso argiak ziren. Lehenik eta behin, *Nazio Ilunak* antolatzeke eta munduaren lehenengo maila politikarako saltoa egiteko gaitasunak erakutsi egin zuten, bertan behera utziz XIX. eta XX. mendearen hasierako teori arrazistak. Beste ideia inportantea, ez-lerrokatzearen edota neutralismoaren ideiak. Uko egingo zuten (printzipioz) mundu bipolarren teoriari eta hau sortu ahal egingo zuten ondorioei. Honekin batera, bakezaletasunari bultzada handia emango zuten. Hau bandera bezala hartu zuten. Gogoratu, lehenengo kolonia batzuk, nazio askapena lortzeko, masen ez-biolentzien mugimenduaz baliatuz independentzia eskuratu egin zuten. Hau influentzia oso handia izan zuen.

Bandungeko espiritua jarraiturik, eta hau osatzeko eta jarraitzeko, 1961. urtean Belgradeko Konferentzia egin zen. Hau Nasserek, Nehruk, eta Titok antolatu egin zuten. Tito Jugoslaviako presidentea zen, bere herrialdea sozialista zen baina SESB influentziatik at (Europar bakarrik Albania eta Jugoslavia berak Moskutik influentziatik at zeuden). Kroaziarrak hasieratik Hirugarren Munduko kidea izan nahi zuen. 1961. urtean, Belgradeko Konferentzian, *Ez Lerrotutako Herrien Mugimendua* (NOAL) “elkartea” sortu egin zen. Hauek helburu nagusi bezala izango zuten:

⁸ Ibidem. 87. orr

autodeterminazioaren aldeko laguntza ematea; Apartheid ukatzea; Nato eta Varsovia Hitzarmenaren kontrako jarrera; Inperialismoaren kontrako borroka; desarmearen aldekoak; herrien barneko kontuetan esku-sartzerik ez, hau da, inperialisten esku sartzeen kontra; NBEren indartzea; nazioen arteko harremanen demokratizazioa; garapen sozioekonomikoa eta nazioarteko sistema ekonomikoaren birmoldatzea.

Lehenengo konferentzian 25 estatu sartu egin ziren. Haientzat zenbat eta kide gehiago parte hartzen bazuten, orduan eta hobeto. Beraz, parte hartzaileen ideologiak oso anitzak izan ziren berriz: bazeuden kide ezkertiarak, hala nola Titok, bina baita kide kontserbadoreak eta erreakzionarioak, hala nola Etiopiako Enperadorea edo Arabia Saudiren Erregeak. Egoera hau oso ongi islatu egin zuen Julius Nyerere, Tanzaniako Presidenteak, zeinak adierazi zuen: “NOAL mugimendu progresista zen, baina ez zela Estatu progresisten mugimendua”⁹. Herrialde bakoitzak bere programa propioa zuen, eta hau oso galera handia zen. Beraz, askotan akordioak heltzeko oso zaila izaten zen; eta honekin batera, argi zegoen mugimenduaren mugak gai askorako. Ia ezinezkoa zen postura ideologiko koherentea eta bateratua izatea. Berriz, bakarrik bi gaiekin erabateko batasuna egon zen: munduaren erabateko desarmean nuklearrean, eta NBEren demokratizazio¹⁰ beharrean.

3.2. 1966ko La Habanako Konferentzia Trikontinentalatik aurrerako aldaketak

Hirugarren Munduko herrialdeek, askapen nazionalen aldeko estrategiarekin aldaketa ideologiko oso garrantzitsua izan zuen: jadanik askapen nazionala eskuratzeko borroka armatuaren taktikak babesten hasi ziren. Hau 1966ko La Habanako Konferentzia Trikontinentalean oso ongi islatu egin zen. Nkrumahren tesi bakezaleak albo batera utziak¹¹ izan ziren Frantz Fanon eta Kuba Iraultzatik sortutako askapen tesi eta strategiengatik. Estrategia aldaketa hau oso eztabaidatua izan zen, batzuk elkarkidetzak baketsuaren alde zeuden eta beste batzuk borroka armatuaren alde inperialismoa erasotzeko. Azkeneko tesi hau gailendu egingo zen. Ulertzeko testuinguruak oso garrantzitsua dira.

Azken urte horietan Kubako Iraultzak garaipena lortu egon zuen, eta Aljeriak independentzia lortu egin zuten. Biak, borroka armatuaren bitartez. Baita Portugaleko

⁹ Ibidem. 198. orr

¹⁰ Ibidem. 183. orr

¹¹ Frantz Fanon, *Afrikar Iraultzaren alde*. (Donostia: Lur, 1978), 3. orr

Afrikako koloniak borroka armatuekin hasi egin ziren: PAIGCek Ginean eta Kabo Berde, MPLA Angolan, eta FRELIMO Mozambiken. Edvard Kardelj lanak, ezberdindu egiten zituen boteretsuen gerra eta ahulen gerra. Lehenengoak beti ukatu behar ziren, bigarrenak testuinguruaren arabera onargarria (eta beharrezkoa) izan litezke. Estatuak beti bakearen alde eta gerraren kontra egon behar ziren. Hala eta guztiz ere, ezberdindu egiten zituen gerra antikolonialistak, zeinak borroka armatua erabili daiteke kolonialistak kanporatzeko; eta gerra nuklear edo sasi nuklearren aldeko politikak (ukatu beharrekoak). Gainera lehenengo hau askotan beharrezkoa da bakea lortzeko. Beraz NOAlek borroka armatuak babesten hasiko zen.

Aldaketa ulertzeko, nahita nahiez, Bandungeko lider nagusien egoera aztertu egin behar ditugu. Garairako U Nu atxiloturik zegoen, Nerhu hilik, Nkrumah oso egoera ahulean zegoen Ghanan (hilabete geroago boterea kenduko zuten), eta Sukarnok eraila izan zen Suhartoren egindako estatu kolpe odoltsua. Azkeneko hau EEUU laguntzarekin.

Bitartean, lider berriak salatu egiten zuten botere inperialistak (eta batez ere EEUU) *Nazio Ilunetan* eskua sartu egiten ari zirela edota zuzeneko ekintzak eramaten ari zirela: Vietnameko Gerra, Lumumbaren eta Sukarnoren kontrako estatu kolpeak eta erailketak, Guatemalako, etab. Lider berriak esaten zuten solidaritate deklarazioekin bakarrik ez zela gehiegi. Borroka armatuak bultzatu egin behar zirela ez bakarrik botere kolonialen kontra, baita edonolako inperialismoaren eta edonolako opresioaren¹² kontra. Beraz SESBren “elkarkidetza baketsuaren” politikak ukatu egiten zuten, eta iraultzaren zabalpena aldarrikatzen zuten. Teori hau Vietnameko Gerren egoerak (non AEB ezin zuela garaipena eskuratu, eta haren ahuleziak agerian zeudelarik) indartuko zuen.

Kubatik aldarrikatu egiten zen munduan zehar erresistentzia armatu foku askok egon behar zirela inperialismoa suntsitzeko. Proletarioen Armada Internazionala¹³ sortu egin nahi zuten. Ernesto Che Guevararen arabera hainbat baldintzak emanaz gero, borroka armatuak sortu egin beharko ziren: Ernesto Guevarak idatzitako liburuan, *Guerra de guerrillas*, azaldu egiten du Amerika Latinoan (eta hau zabaldu zezakeen mundu osora, batez ere Afrikara) eman beharko ziren lau baldintzak gerrilla borroka

¹² Carlos Andres Fabbri, , “La política exterior de Cuba hacia América Latina, reflexiones en torno a la “exportación del comunismo””, *América latina hoy: Revista de ciencias sociales*, (ISSN 1130-2887, VOL. 6, 1993), 42. orr

¹³ Martin Meredith, *África. Una historia de ,...*, op. cit., 185-187. orr

emateko. Lehenengo baldintza ekonomikoa zen, gerrillak landatarrak izango beharko ziren, beraz herrialde hauetan lehen sektorea nagusia izan behar zen (herrialde azpigaratueta ematen den baldintza). Bigarren baldintza soziala da, herrialde hauetan nekazariak esplotatuak eta bizi baldintzak duingabekoak izan beharko ziren, hau ematen bazen, nekazariak subjektu iraultzaile inportanteak izango ziren. Hirugarrena baldintza egoera politikoa zen, bertako gobernuak gai ez baziren demokrazia burgesa eramateko, sozialismoa aukera bakarra izango lirake. Laugarrena eta azkenengoa baldintza militarra zen, bakarrik landa gune handitan benetako armada popularra antolatzeko eta entrenatzeko¹⁴, inperialismoei aurre egiteko denbora luzean eta hau suntsitzeko. Dena den, teori hauek ez daude beteak. Ikusi egin da baita beharrezkoa dela masen lanketa politikoa (zeintzuk askok eta bertako lider politikoen babes) gerrillako borrokalariak babes izateko. Cheren egindako bi espedizioetan ikus ahal ditugu. 1965eko apirilean Gevarak beste 120 gerlari kubatarrekin Kongora joan egin ziren (Tanzaniatik sartu egin ziren, Tanganika lakua pasata), Laurent Kabilaren matxinoei laguntzera Mobuturen gobernuaren kontra. Laster, argentinarra konturatu egin zen Kabilaren borrokalariak ez zutela diziplinarik, ezta entrenamendurik eta askotan haien artean liskar tribal¹⁵ oso gogorak zeuzkaten. Mobuturen armadaren kontrako egindako erasoak izugarrizko porrotak izan zuten. 1965eko abenduaren 1966eko urtarrilaren artean, kubatarrak Kongotik joan egin ziren. Boliviako kasuan, non Gevarak erail zuten La Higuera, bestelako arazoak izan zuten. Bertako Alderdi Komunistako liderrak, Mario Monje, gerrillari ez zuen babestu. Hauek laster nekazal eta masen laguntza ez zuten jasoko, zeren borrokalariak atzerritar bezala kontsideratuko zituztelako (nahiz eta boliviarrak askok parte hartu honetan), eta borroka ez zuen arrakastarik izan.

Dena den, Fokuen estrategia hau ez zuen arrakastarik izan, edo oso mugatua izan zituen, printzipioz. Laurogei hamarkadarako ateetan, borroka armatuaren politikak babes eta bultzada indar handia galdu egin zuen.

¹⁴ Joan Del Alcazar, "América Latina en el Siglo XX". en *Historia de América*, coord. Juan Bosco Amores Carredano, 801-856.(Bartzelona: Ariel, 2012), 828. orr

¹⁵ Martin Meredith, *África. Una historia de ...*, op. cit., 186-187. orr

4. PROGRAMA EKONOMIKOAK

4.1. Lehenengo urratsak

Hirugarren Munduko Herrialdeek behin independentzia lortuta, izaten zuten egoera ekonomikoa oso txarra zen. Hainbat arrazoi zeuden. Lehenik eta behin, lehen sektore tradizionala ekonomiaren pisu gehiena izaten zuten. Bakarrik ekintza ekonomiko garatuak kolonoek eta kolonoen menpe egoten ziren. Horretaz gain, izandako sistemak koloniala metropoliari (eta haren biztanleei, bai metropolian zeudenak, baita kolonietan zeudenak) bakarrik mesede egiten zion. Ekonomiak lehengaiak gordinak metropolietara esportatzeko eta manufakturak inportatzeko bideratuta zegoen. Bigarrenengo hauek lehenengoak baino balio elastiko askoz handiagoa zuten. Beraz lehengai asko esportatu beharko zuten merkatal balantza positiboa izateko. Gainera Lehen Munduko herrialdeak kontrol oso handia zeukaten prezioekiko, eta hauek lehengaien prezioak baxuak izatea eragiten zuten. Horretaz gain, gehitu beharko dugu Mendebaldeko herrialdeen industriak, teknologiak, prestakuntza eta lan indarra askoz hobekak zirela. Noski, hein oso handi batean kolonietatik lapurtu egiten zituzten plusbalioetatik (bai lehengaiak, baita lan esku masa merkearengatik) finantzatu egin ziren.

Ekonomia, garapena, eta ongizatea oso baxua eta atzeratua zegoen. Hau aldatzeko, normalean Hirugarren Munduko herrialdeek hiru neurri handi bultzatu egin zituzten: sektore estrategikoen eta finantza sistemaren (batez ere bankuenak) nazionalizatzea ekonomia kontrolatzeko, nekazaritza garatu, eta industrializazioaren bultzada. Zein politika ekonomikok izango ziren hoberenak, batez ere azkeneko hau lortzeko? Ze bide jarraitu egin beharko zuten?

NOALeko herrialdeentzat Raul Prebisch ekonomialari oso inportantea izan zen. Honen tesien arabera, beraien sistema produktiboa guztiz eraldatu egin beharko zuten, hau da, herrialdeak industrializatu egin beharko zuten. Baina hau oso bide zaila zen *Nazio Ilunentzat*. Lehenik eta behin, nazioek ez zuten beharrezko diru kapitala hain inbertsio handiak egiteko, nahiz eta sektore estrategikoak (askok lehengaien produkzioak ziren) eta lehen sektoretik sortu egiten ziren mozkinak jarriz (marko internazionalako testuinguru librekanbista batean, industria lehiakorrek sortzeko); horretaz gain, Lehen Munduko potentziak ez zuten halako inbertsiorik egingo, eta are gutxiago zeinak herrialde horietako biztanleen ongizatea lortu egingo zutenak. Horretaz gain, kanpo laguntzak oso eskas izaten ziren. Beraz, industria nazional bat sortzeko

mekanismo hoberena arantzelak eta muga-sariak izango ziren. Muga-sariak oso altuak jarri beharko zuten kanpotik etorri egiten ziren manufakturentzako (eta batez ere, nazio barruan sortu ezin ziren manufakturentzako), horrela produktu hauek oso garestiak izango ziren eta gizarteak hauek erostera ukatuko zuten. Bitartean, estatutak manufakturak sortzeko industriaren eraikuntza bultzatuko zituen (herrialdearen arabera, hauek estatalak edo pribatuak izango ziren), eta hauek barne eskaera astuko zuten, eta hein batean saiaturiko ziren esportatzen (azken finean manufakturak produktu gordinak baino askoz balio erantsiagoa izango zuten). Sistema hau ezagutu egingo zen: Inportazioen Ordezkapenaren Industrializazioa. Hori bai, ekonomialaria argi zeukan nazioen industrializazioa ez zela helburua, baizik eta masentzako ongizatea¹⁶ eta duintasuna lortzeko bidea.

Inportazioen ordezkapenerako industrializazio estrategiari gehitu beharko zuten, Hirugarren Munduko herrialdeen arteko kartel ekonomikoak sortu beharko zituztela, batez ere lehengaietarako. Hauen sorrerekin, produktu gordinak prezio hobeekin esportatu ahal izango zuten; eta ez merkatuak ezarritakoak (hauek normalean Lehen Munduko herrialdeak eragiten zuten). Gainera, saiaturiko ziren garapen berdintsua izaten zuten herrialdeen merkatuak sortzen. NBEtan eskakizun eta programa hauek aurrera ateratzeko, UNCTAD sortu egin zuten.

Hala eta guztiz ere, Raul Prebischen bidea huts egin zuen, eremu praktikoa egokira eramateko gai ez zirelako. Alde batetik, ia kartel guztiak huts egin zuten (OPEP izan ezik), zeren beti egoten zen herrialde baten bat lehengaiak askoz merkeago merkaturatzen zituztelako, kartelei min eginez. Gainera nazioarteko merkatu paralelorik ezin zuten sortu. Beste aldetik, sortutako enpresa nazionaletan, hazkundera egoten zen bitartean, mozkinak era sozialago baten banatu egiten ziren (horrela masak lasaiturik egongo ziren, eta oposizioei eraso ahal egingo zuten); baina produkzioak ez ziren sozialistak. Honekin esan nahi dudana da eliteko kideek kontrolatu egiten zituzten enpresak eta ez langile guztiek. Hau eragingo zuen oligarkek enpresak erabiliko zituzten haien mesedetarako, eta ez nazioen edota herritar guztientzako mesedetarako. Urte batzuk geroago, Prebischek onartu egin zuen gizarte osoaren ongizatea lortzeko,

¹⁶. Vijay Prhashad, *Las Naciones Oscuras*. . . ., op. cit., 129. orr

hazkundeaz gain, gizarte estrokturen eraldaketa¹⁷ (horizontalago bilakatzeko) egin beharko zela.

Herrialde gehienek bilatu egin zuten lehenengo industriaren garapena eta ez nekazal garapena eta erreforma. Nazio oso gutxik alderantzizko bidea egin zuten. Seguruenik, zeren Hirugarren Munduko herrialde gehienak lehen sektorea nagusi zelako eta bertan lur jabe handi oligarken kontra egin beharko zutelako. Alderantzizko bideak egin zuten herrialdeek, benetako programa sozialista izango zuten, eta ez bakarrik ongizateduna. Adibide hoberena Tanzaniakoa izan zen, Julius Nyerere presidenteak eginikoa. Honek bultzatu egingo zuen sozialismoa, zientifikotik eta inspirazio marxistakotik (defendatuta Modibo, Keita, Kwame, Nkrumah¹⁸, etab.) aldentuta; hots, Nyerere sozialismoa afrikar berria bultzatuko zuen. Tanzaniarra argi zeukan lehenik eta behin lehen sektorea bultzatu egingo zuela. Hau 1967ko otsailaren 7ko Arushako Deklarazioan jaso egingo zen. Honekin apustu argia egingo zuten landa munduaren estrokturak eraldatzeko, gizartearen erlazioak horizontalak bihurtzeko (hala ere sistema familiar tradizionalak mantenduz), eta lehen sektorearekiko independentzia lortzeko. Sistema tradizionalak *ujamaa*engatik eraldatu aldatu egingo zuen. Ujamaa suajilizko¹⁹ hitza da, eta euskarazko itzulpena: familia izango zen. Familiak ezberdinak herri sozialista berri hauetan batu egingo ziren, eta haien bizitza eta lanak komunitatean egingo zuten: lurra landu guztion artean, zerbitzuak gestionatu guztion artean, mozkinak hirutan banatuko zituzten: ujamaa kideen artean (egindako lanaren eta beharren artean), estatuari zergak ordaintzeko, eta ujamaako kideen arabera, azkeneko zatia erabiliko zen komunitateak egin behar zituen inbertsioak egiteko. Bitartean, estatuak nekazaritza modernizatzeke eta herriak zerbitzuzk izateke (eskolak, anbulatorioak, etab.) beharrezko inbertsioak egingo zituen.

Hala ere oso familia gutxi Ujamaaetara joaten ziren. Nyererek aldatetak bizkorrak behar zituen eta Ujamaara mugitzera nahita naiazkoa zen. Beraz, nekazariei aldatzea behartzeko estaturen aparatuak erabili zituen, hots, errepresioaren bitartez. Honek eragin zuen ujamaa sistema eraginkorra izatea uztea. Alde batetik, errepresioen bitartez aldatzea behartzeak, nekazariak boikot eta disidentzia praktikatu zutean: produktuak ez landatu, ongarriak saldu, esan ez zutela ulertzen nola egin behar ziren

¹⁷ Ibidem. 136. orr

¹⁸ De Olivera e Castro. Luis Felipe, "Socialismo africano: rebelión permanente", *Revista de Política Internacional*, (ISSN 0034-8716, Nº 94, 1967), 9. orr

¹⁹ Martin Meredith, *África. Una historia de ...*, op. cit., 309. orr

gauzak, etab. Beste aldetik, gobernuak errepresioarekin hasi zenean, nekazari masa gehiegi mugiarazi zituen denbora gutxitan. Ujamaa gehienak prest ez zeuden. Hau eragin zuen askok eraiki behar izatea oso denbora gutxitan, eta oso gaizki eginaz: lur emankorretan eraiki, etab.

Beraz kasu gehienetan nekazal erreformak alde batera utzi egin zuten. Alde batera utzi zuten nekazal iraultza “gorria”; eta *Nazio Ilunetan* nekazal sistema tradizional atzeratuta mantenduko zen. Hau aldatuko zen, baina ez nekazal erreformengatik (zeinak herrialde gehienetan ez ziren egin, edota egindakoak oso txikiak ziren), Iraultza Berdearen fenomenoarekin. Hau eragin zuen nekazal uztak asko ugaritzea. Hau eman egin zen, Hirugarren Munduko estatuek krisian sartu egin zirenean. Dena den, halakoak inbertsio oso handia behar zuten, iraultza hau oligarkek edo kanpoko multinazionalak bakarrik egin zuten. Hauek landu egiten zuten produkzioa esportaziorako egiten zen, beraz, nekazal autosufizientzia ez zen emango.

4.2. Arazo ekonomikoak eta NOEI bidea

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, Hirugarren Munduko Herrialde askok krisi ekonomiko larrian sartu egin ziren: elikagai krisia, industria krisia, zorra krisia, petrolioaren krisia, etab. Horregatik, *Nazio Ilunak* saiatu egin ziren azkeneko maniobra bat egiten haien proiektua berpizteko. Haien maniobra, plana, *Nuevo Orden Económico Internacional* (NOEI) izan zen. Honekin ezarritako orden ekonomiko internazionalari erasotzen saiatu ziren. Garaiko testuinguru horretan Hirugarren Munduko herrialdeek, zeintzuk munduaren biztanleriaren %70 zeukatenak, bakarrik moneta internazionalaren erreserben %4a zeukaten. Hau eragiten zuen Lehen Munduak erreserben sorrera eta banaketa kontrolatzea, beraz aktibo finantzieroak manipulatu ahal zituzten. Honi gehitu beharko genioke, nahiz eta esfortzu handiak egin industrializatzeko eta manufakturak sortzeko, oraindik herrialdeak azpigaratuak zeuden, zeren eta bere ekonomiak bideratuta zegoen lehengaien esportaziora (zeren dibisa askok behar zutelako), eta noski, hauen balio erantsia oso txikia zen. Gehituta, askotan lehengaien erosleak hauen prezioak artifizialki jaitsi egiten zituztela. Gainera, askotan beharturik zeuden kanpoko manufakturak erosteko. Horretaz gain, askotan ezin zituzten manufakturak esportatu Lehengo Mundura, zeren hauek arantzel oso altuak ezarri zituztelako Hirugarren Munduko manufakturaentzako. Noski, askotan multinazionalak herrialde ez garatuen egoera txarraz aprobetxatu egin ziren, bigarrentzako kontratu oso

desorekatsiak ezarri. Azkenik, herrialde azpigaratuek, politika ekonomiko internazionalen marjintuak izan ziren, beraz ezingo zuten haien interesak defendatu²⁰.

NOEiko planak hogeita bost puntu zituen. Hauetan hitz egiten ziren: Garapeneranzko bidea egiten ziren herrialdeei laguntza ekonomiko eta tekniko eman behar zitzaie (adierazgarriena izan zen herrialde garatuak lagundu egin behar zuten NPGaren 0,7rekin); merkataritza internazionala; industrializazioa eta teknologia; gizarte kontuak (giza garapena). Gai konkretu inportantenak hauek izan ziren: garapeneranzko bidean zeuden herrialdeen zorraren bir-negoiazioa. Zorra handia zuten, gainera petrolioaren krisiarekin, interes tasak asko handitu zuen. Zorrak, herrialde hauen dibisen galtzeak eragiten zuen, eta hauek herrialde hauentzat beharrezkoak ziren. FMiren²¹ erreformatzea, Lehen Munduko herrialdeen beso luzapena ez izateko, eta Hirugarren Munduko herrialdeen interesak defendatzeko. Kanpo merkataritza rolen aldaketa, hainbat kapital erreserbak eginez, zeintzuk *Nazio Ilunen* egoera komertziala beste herrialdeekiko hobetzen lagundu beharko zuten.

Azkenean, NOEiko helburu nagusiak huts egin zuten. Hau eragin zuen munduak zuzenean globalizazio, interdependentzia, eta neokolonizazioaren bidera joatea. Honekin batera, Hirugarren Herrialdeko proiektuaren erailketara.

5. INDEPENDENTZIAK OSTEKO SISTEMAK POLITIKO ETA SOZIALAK

Garai kolonialistan, independentzia bidean zeuden nazioak, askapen nazionalen mugimenduak, bai bakezaleak baita armatuak; masen mobilizazioak behar zuten botere kolonialak kanporatzeko. Honetan nazio osoa bat egiten zuen helburu nagusia lortzeko: independentzia formala. Klase arteko aliantzaz gain, masen ideologizazioa eta politizazioa beharrezkoak ziren helburuen lorpena eskuratzeko. Herri xeheak pentsatzen zuen demokrazia erradikala emango zela eta estatu berriaren eraikuntzan haien hotsa, beharrak eta nahiak kontuan hartuko zituztela. Baina halakorik ez zen gertatu. Estatu guztiak goitik behera eraiki egin ziren, hau da, era ez-berdintsu batean; bai erregimen multipartidistetan, baita alderdi bakarreko erregimenetan (hala erregimen progresistetan edo kontserbadoreetan). Herriak estatu berria eraiki behar zuten, beraien esfortzu eta

²⁰ Michael P Todaro, *El desarrollo económico del Tercer Mundo*. (Madril: Alianza Editorial, 1988), 644. orr

²¹ *Ibidem*. 647. orr

sakrifizioarekin; baina ez zuen inolako botererik izango. Estatuan demokrazia sozializaturik ez zen egon.

Nazio berrien estatuen eraikuntza askapen alderdiaren menpean egongo zen. Hau eliteek kontrolatu egingo zuten. Estatu berriaren eraikuntzaren esfortzu oso inportantea bideratu egingo zen askapen nazionaletik datozen eliteen boterea mantentzeko: korrelazio indar sistema tradizionala mantenduz, edota estatu berriak sortu egiten zituen korrelazio indar berriak erabiliz (burokrazia, diru laguntzak, enpresa nazional berriekin, banka berriarekin, erlazio klientelarra berriak, etab.).

Sistema hau eraikitzeko, oligarkek (berriak edota zaharrak) behartuak zeuden herri masen desmobilizazioa egitea. Horretarako hainbat mekanismo zituzten. Nazio askapena lortu egin zuen alderdiaren prestigioa (edota hauen buruzagien prestigioa), beste alderdi edo agenteak deslegitimatzeko. Gainera, zabaltzen zuten ideia zeina beraiek bakarrik boterea izateko legitimazioa zutela. Herria desmobilizatzeko beste maniobra inportantea ongizatearen zabalpena izan zen. Nazioen estatu berriak (burgesak eta edonolako elite eta oligarkak kontrolatutakoa), zerbitzu eta materia fisikoa ematen zien herriari pozik egiteko, eta ez mobilizatzeko. Azkenik, estatuak errepresioa erabiliko zuten subjektu mobilizatuen kontra. Sindikatuak, alderdi politikoak, etab. Batez ere alderdi komunisten kontra egin zuten. Indar gutxi zuten tokietan zuzenean ezabatzea joaten ziren, ala nola Egipton, Aljerian, Hego Amerikako leku askotan. Indartsu ziren nazioetan, hasieran erabili egiten zituzten alderdi nazionalak indartzeko estatu berrietan (alderdi komunistak zeintzuk Kominter menpean zeudenak, askapen nazionalako alderdi burgesekin kolaboratzen zuten, Komintern VII. Kongresutik geroztik); eta behin boterea finkaturik, hauen kontra egingo zuten. Kasu esanguratsuenak Irak, Sudan, Iran, eta Indonesiaren (kasu honetan, askapen nazionalako alderdi osoaren kontrako mugimendua izan zen, ez bakarrik komunisten kontra) kasuak. Halakoak izan ziren bai bertako eliteek nahi zutelako edota AEB eta inperialisten prezioengatik. Askotan SESB eta Txinaren “onarpenarekin”²² (nahiz eta komunisten kontrako mugimenduak egin arren, bi herrialde hauek jarraitu egin zuten negozioak egiten). Bigarren Munduak ez zuen ia ezer egin, baina NOALEko kideak ezta. Kotsideratu egiten zuten, halako errepresio eta biolentziak herrialde bakoitzeko barne kontuak zirela.

²². Vijay Prhashad, *Las Naciones Oscuras*,..., op. cit., 267. orr

Bandungen eta Belgraden, Hirugarren Munduko herrialdeek konprometitu egin ziren munduko bakearen eta desarmatzearen alde lan egitea. Elkarrizketak eta kooperazioa arazoak konpontzeko erremintak bakarrak izan behar ziren. Hala eta guztiz ere, bi helburu hauek laster ukatuak izango ziren. Estatu berriek konturatu ziren burgesak eta armadak beharko zituztela, batez ere ordena mantentzeko. Hau oso kontraesankorra zen. Ezin dira arazoak era baketsu batean konpondu nahi, eta aldi berean ejertzito bat izan. Nazio berriek aberria defendatzeko armadak behar zirela argudiatu egin zuten; kanpo eta barne etsietatik (hau da, alderdiaren, estatuaren eta oligarken kontrako oposizioa).

Herrialde deskolonizatu berri askok, muga arazoak zituzten, zeinak “errealitatearekin” bat ez zetozen (bai herri bat bitan edo gehiagotan banatuak izan zirenak muga artifizioal batzuegatik; edota justu kontrako fenomenoak). Hauek inperialismoaren oinordeak ziren, eta herrialde berriek konpondu beharrekoak. Hasiera batean, NOALeko ideologi internazionalistak izanda, arazoak era baketsuan konpontzen saiatu ziren. Baina denborarekin, gerraren bidea erabiltzen hasi ziren. Hau noski, herrialdeen aldaketa ideologikoarekin bat etorriko zen; internazionalismoa alde batera utzi zuten, eta jarrera kultural inperialista chovinista bereganatu egin zuten. Gerrak bidea erabiltzea, ondorio zuzenak izango zituen. Armadaren aurrekontuak gora egin zuten; giza eta ekonomi garapenerako politikei kenduz. Armadarako teknologiak gehienbat inportatu egin behar ziren, horrela nazioak izaten zituzten dibisa askok galdu egiten zituzten; zeintzuk ekonomiarentzako beharrezkoak ziren. Honekin batera, gerra teknologiak erosi beharko zien NATOrri edota Varsoviako Itunari; beraz, Lehen edo Bigarren Munduarekiko dependentzia igoko zen, hots, Hirugarren Munduko independentzia maila jaitsiz. Azkenik, armadaren influentzia *Nazio Ilunenetan* handitu egingo zen. Hauek, gero eta indar gehiago izango zuten, eta azkenean boterea izateko subjektu oso inportanteak izango ziren. Botere ahula zeuden herrialdeetan, edota boterearen kontrako oposizio mekanismoak ahulak izaten ziren lekuetan, armadak askotan boterea bereganatuko zuen pronuntziamentu eta estatu kolpeen bitartez. Hauen helburuak herrialde eta militarren arabera izango zen: batzuk erregimen sozialistak ezartzeko eta gobernu oligarkak kenduz; beste batzuetan kontrakoa, erregimen progresistak suntsitzeko eta botere erreazionarioak ezartzeko; edota bestetan, alternatzea eta botere aldaketa hutsagatik.

Behin independentzia lorturik, nazio berriek jasandako inperialismo kulturalari ere aurre egin beharko zien. Kolonialismoaren garaian, Mendebaldekoek inposatu zien eredu kulturala, haiena. Gainera, konbentzitu egin zien haien kultura tradizionala txarragoa zela, garapenerako oztopoa zela. Beraz, kolonialismo formalaren kateak apurtu zituztenean, hasiko ziren garaiko kulturak tradizionalak berreskuratzen eta goraipatzen; edo hobeto esanda, kultura tradizionalak. Nazio berrien mugen barnean, kultura ezberdinak zeuden, horregatik estatu berriak multinazionaltzat jo zuten haien burua, eta kulturen berdintasuna aldarrikatu egin zuten estatu eta herrialde berriaren eraikuntzan. Hala ere, herrialde hauen gizarteak ez ziren era horizontal batean eraiki, beraz, azkenean kulturen esparruan gauza bera gertatuko zen.

Estatuaren eraikuntzan gero eta garatuagoa egoten zenean, kultura batzuen diskriminazioekin hasiko ziren. Nazio berriak hizkuntza ofizial bat edo bi izango zituzten; kultura batzuen egutegia ezarriko zituzten, babestu jarrera kultural konkretu batzuk, etab. Afrika iparraldeko herrialde batzuen kasuak (hala nola, Maroko), zeinak arabiar kultura bultzatu egin zuten, aldiz bereberrena ukatu zuten. Zergatik kultura batzuk babeste, eta beste batzuk ez? Sistema beraren logikagatik. Alderdi eta estatuaren barruan pertsonak ziren; hauek hainbat gauza behar zuten boterea mantentzeko eta legitimatzeko. Oligarkek, nazio zati bati erabili egiten zituen, nazio-kultura oligarkek babestuko zien politika klientelistekin; eta herri xeheak (askotan herrialde berriaren gehiengoa dena) haien kulturak babestu eta inposatuko zuten herrialde osoarentzat. Hots, balore chovinistak bereganatzen eta erabiltzen hasiko ziren. Estatu eta alderdiko kideak, batez ere bigarren belaunaldikoak (hau da, kolonialismo formala ez zutena bizi era zuzen batean), boterea izateko legitimazio berria izango zen. Estatu berriak bizitza eta kultura bat izango zuen. Adibide bat Indiarena, Kongresuko alderdiak hinduismoaren alde egingo zuen gehienbat. Horrela multinazionalismoari nazionalismo kulturalak²³ ordezkatu egin zion. Mendebaldeak bere garaiko estiloarekin. NOALeko fundamentu garrantzitsu bat deuseztatuz.

²³ Ibidem. 275. orr

6. *INPERIALISMOAREN ERASOAK*

Botere inperialistek ez zuten ongi ikusi Hirugarren Munduko proiektua, eta laster saiaturko ziren herrialde hauen bidea kontrolatzen eta bideratzen, noski, inperialisten eta hauen kolaboratzaileen onuretan. Kolaboratzaileaz hitz egitean, esan nahi dut Hirugarren Munduko herrialdeetako subjektuak, zeintzuk haien onurako, aberastasun pertsonaleko eta boterea izateko; nazioaren onura sakrifikatu egingo zutenak inperialismoaren interesak defendatzeko. Hots, botere inperialistak hauek erabiliz, *Nazio Ilunen* esplotazioan parte hartuko zuten. Helburu hau lortzeko, hainbat bide egongo ziren.

Mendebaldeko herriek kasu batzuetan, hirugarren herrialdeak zuzenean inbaditu edota eraso egingo zuten; bertako gobernuak suntsitzeko. Gobernu hauek, zeintzuk askotan progresista etiketa jarriko genukeena, inperialismoen agenteen eta interesen kontra egingo zuten; herrialdeko masen egoera hobetzeko (arrazoi zintxoengatik, hau da, benetan helburu hori bilatzen zutelako; edo masen egoera hobetu, hauen babesa izateko boterea izateko) eta duintzeko; edo oligarken boterea gehiago lortzeko kanpoen interesen aurrean (azkeneko hau oso gutxitan). Herrialde independente eta errekonozitu asko inbaditu egin zuten: AEBk Roosevelt Kolorario Doktrinarekin: Nikaragua, Haiti, Mexiko, Santo Domingo, etab. Gerra hotzean eta geroago Panama, Irak, Afganistan, Granada, Vietnam, Korea, Libia. Mendebaldeko Europako herrialdeek ere halakoak egin zuten. Adibidez Frantzia eta BHK Nasserren Egipto inbaditu zuten. Inbasioak bukaturik, gobernu aliatuak jarriko zituzten, zeintzuk Lehen Munduko agenteen interesak defendatu egingo zutenak. Horretaz gain, askotan herrialde atzerritarretan, base militarrek²⁴ ezarriko zituzten.

Inperialismoek erabilitako beste bide bat, zeharkako eraso politiko-militarra izan zen. Gustuko ez zuten gobernuak akatseko, oligarkak, oposizioak (legala edo ilegala), militarrek edota matxinadak erabili egin zuten. Hauek boterea eskuratu egin behar zuten, gobernuaren politikak kontra-programatzeko. Boterea eskuratzen ez bazuten, hauek herrialdeak ezegonkortu egin beharko zuten tentsioak igotzeko eta egoera txartzatzeko; gobernuaren proiektuak deuseztatuz, eta hau erortzeko. Kasu eta mota mila egon dira: Patrice Lumumba Kongon, Sukarno Indonesian, Sankara Burkina Fason;

²⁴ Petras, James, "La construcción imperial y dominación: EE.UU. y Latinoamérica", *Filosofía, política y economía en el Laberinto*, (ISSN 1575-7161, Nº. 13, 2003), 5. orr

Allende Txilen, Guatemalan Jacobo Arbenz Guzman, Laosen, Nikaraguako Kontra, Angolan, Afganistan 80. hamarkadan, etab. Halakoak NOALeko kideko herrialdeetan gertatu harren, eta askotan ezarritako gobernuak kriminal eta lapurrak izan arren, Lerrokatu gabeko Herrialdeen barruan mantenduko ziren. NOALek halako gertaerak barneko kontuak bezala kontsideratuko zuten.

Baina, azkenean, Inperialismoaren arma hoberena ekonomikoa izan zen. Lehen Munduko herriek merkatu internazionala kontrolatu egiten zuten (merkatu librearen kontua faltsua da); eta hauek Hirugarren Munduko esportatzen zuten produktuen (batez ere, lehengaiak) prezioak artifizialki ondoratzen zuten, haien ekonomiak izorratuz.

Ofentsiba ekonomiko nagusia, 70. hamarkadatik aurrera etorri egin zen. *Nazio Ilunak* zorpeturik zeuden, zeren kredituak eskatu egin zituzten ekonomia garatzeko (aurreneko kapituluan komentaturik). Petrolioaren krisiarekin, interes tasak asko handitu egin ziren; honi gehituta, industria konpetitiborik ezin zutela sortu, eta merkatal balantza negatiboa zelarik, etab. Hirugarren Munduko herrialdeen ekonomien porrota eman zen. Egoera honen aurrean, NOALeko kideak bi bide nagusi hautatu ahal zuten: NOEieko bidea sendotu eta jarraitu; edo FMiko neurrien eta globalizazioaren aldeko bidea apustu egitea. Bigarren bidea jarraitu egin zuten. Hirugarren Munduko liderrak hau hautatzeak Hirugarren Munduaren eraiketa izango zen.

Zertan datza FMiren neurriak? Erakunde honek herrialdeen ekonomiak erreskatatuko zituen, baina halako dohainik ez zen izango. Estatuak hainbat erreformak egin beharko zituzten. Lau ziren nagusiak: Lehenengoa, estatuak herrialdean egoten ziren inportazioak eta esportazioen kontrola ukatzea. Hau da, honen liberazioa, sistema librekanbista bat eratzea, arantzelak murriztuz edo desagerraraziz. Bigarrena, monetaren devaluatzea. Hirugarrena, gastu publikoaren murrizketak, soldaten kontenzioak, eta prezioen kontrolak kendu. Gastu publikoaren murrizketarekin, gobernuak enpresa publikoak pribatizatu beharko zuten, hezkuntza eta osasuna publikoa murriztu. Kuriosoki, bakarrik defentsa eta poliziaren gastuak igo ahal zuten, masak erreprimitzeko. Laugarrena, eta azkenik, ekonomia atzerriko merkataritzari ireki, eta atzerriko inbertsioentzat baldintzak egokiak²⁵ ezarri. Hots, zona frankoen guneak sortu, non langileak legalki esplotatu ahal zuten eta zergak gutxi ordaindu.

²⁵ Michael P. Todaro, *El desarrollo económico del*, ..., op. cit., 641. orr

Baina neurri hauek ez zuten herrialdeen egoera ekonomikoa hobetu edo sendatu. Justo kontrako ondorioa izan zituen. Hazkunde ekonomikoak murriztu edo negatiboak bilakatu egin ziren, izan ahal zituzten errekursoak deuseztatu ziren, sortutako industria nazionala bukatu, etab. Herrialde hauek lehengai esportatzailea bueltatu ziren, eta jaso egin zuten industria globalizazioak bultzatutako herrialde garatuetatik deslokalizatzen ziren enpresen guneak, zeintzuk herri xeheari edo estatuari ia inolako aberastasunik utziko zutenak. Estatuak, haien lehentasunak aldatu zuten inportazioen ordezkatzeko industriatik, zeintzuk nazioaren herritarrentzako garapena bilatu egiten zutenak; kanpo enpresak gune ekonomiko fiskal berezietara kokatzeko.

Neurri hauekin, Hirugarren Munduaren neokolonizazioa emango zen. Oligarkek saldu egin zituzten haien herrialdeen soberania. Hau islatuko zuen garaiko oligarkek aberri kontzientzia izatetik, klase kontzientzia izatera pasa ziren. Jakin beharra dago, oligarka kide askok, haien ikasketak burutu egin zituzten Lehen Munduan, eta lan egingo zuten bertako multinazionala edota erakunde internazionala: hala nola FMIn, Munduko Bankuan, etab. Aberria oso gaizki egon ahalko zen, baina bertako eliteek gero eta aberatsagoak izango ziren. Horretaz aparte, hiritarren papera edota eskubideak murriztu ziren.

7. GOGOETA: HIRUGARREN MUNDUKO HERRIALDEEN PROIEKTU POLITIKOAREN DEUSEZTAPENAREN ZERGATIAK

Hirugarren Mundua akabatua dago. Haren oinarrizko printzipioak, idealak, eta helburuak albo batera utzi egin dute. XX. mendean jaiotako nazio subalterno hauek sortutako esperantza, zeinak mundu justuago eta duinago bilatzen zutena, mila puzketan puskatu egin zen. Proiektuaren amaiera, miseria, gerra, tentsio, eta gehiegikerien herentzia ekarriko zuen. Honen bukaera ulertzeko hainbat faktore barneko estrukturalak, eta kanpokoak egon ziren.

Nazio berri hauek goitik behera eraikitzeak oso baldintzatzaile handia izan zen. Honi gehitu egin behar zaio estatuen demokratizazioen sozializazioa oso gutxi garatu egin ziren, bai estatu multipartidistetan, naiz eta alderdi bakarreko estatuetan. Oposiziorako edota disidentziarako mekanismorik ez egoteak sistema beraren usteltzeak ekarriko zuen. Batzuk argudiatu egiten zuten mekanismo honen falta helburu bat izaten

zuela: inperialismoa nazio berrietan ez sartzea. Egia izan daiteke, hala ere ikusi izan denez, azkenean inperialismoak sartu egin da. Gainera neurri hauek sortutako gabeziak berreskurazinak izaten dira, proiektu osoa pikutara bidaliz. Azken finean, boteretsuei inolako kontrola jartzen ez bazitzaien, gehi eraikitako sistema gardentasuna eza baldin bazegoen, oligarkek maskara kenduko zuten, eta herriaren sortutako gainbalioak lapurtuko zituzten. Hau beste ondorio batzuk izango zituen: kulturalismoen berreskurapena eta militarismoaren zabalpena. Bi hauek proiektu orijinalarekin erabat kontrajarriak.

Beste arrazoi oso garrantzitsua (eta lan honetan ezin dudana landu), sistema berriak patriarkala izan ziren. Nazioaren askapenerako, emakumeak papera eta borroka ezinbestekoak izan ziren; baina behin independentzia lorturik, erabateko askapena (edo honen saiakera) nazio erdiarentzat izan zen, kromosoma XY dutenentzat. Egia da nazio batzuk neurri politikoak egin zutela emakumearen emantzipazioa lortzeko; baina aldaketak politikoak ez zuten bukatu aldaketa sozialean, orduan benetako genero berdintasunari ez zen egon. Azken finean, iraultza feminista izan beharko zen, edo ez zen izango; Hirugarren Munduko proiektua galduz.

Arrazoi ekonomikoak ere badaude. Herrialde hauek kapitalismoa bera ukatu ez zutenean, argi gelditu egin zen porrotarekin bukatu egingo zutela. Ez bakarrik Lehenengo Munduak mekanismo hobeak zituelako sistema honekin irabazteko; baita kapitalismo fundamentu berak Hirugarren Munduko proiektuaren fundamentuekin kontrajarriak zirelako. Lehenengoak mozkinen sorketa eta aberastasunen pilaketa bilatu egiten zuelako, bigarrenak berriz, *Nazio Ilunen* garapena, independentzia, ongizatea, eta duintasuna. Hautatutako sistema kapitalistarekin, naiz eta *Nazio Ilun* batek esandako helburuak betetzen bazituen; hau eragingo zuen beste nazioen porrota. Horrela nazioarteko solidaritatea eta internazionalismo idealak apurtu egingo ziren.

Burgesiak nazionalak hautatutako bideak garapen hori eskuratzeko, benetan pentsatzen zuten bide egokia zela helburu hau lortzeko, edo egiten egin zuten hauen egoera oligarkikoa mantentzeko? Bide neoliberal eta FMiren neurriak hartzerakoan, argi dago bigarrenengo hipotesia dela. Baina, industria inportazio ordezkapenerako taktikak martxan jarri zutenak, zergatik egin zuten? Lehenengoagatik, bigarrenagatik (hau apustu egin zuten, zeren nazio indartsua behar zutelako bizirauteko eta boterean egoteko), edo bi arrazoiengatik? Honen erantzuna momentuz ez dakit. Dena den,

benetan eta guztiz jakinda, 80. Hamarkadako liderrak izan ziren Bandungetik jaiotako proiektua erail zutenak. Hauek, jadanik ez zuten nazioa bizirauteko.

NOALek sartzeko ideologi irekiegia zegoen. Hau eragin zuen proiektu honetan benetan sinesten ez zuten herrialdeak bertan sartzea eta parte egin. Baita eragingo zuen akordioetara heltzeko gaitasun txikia izatea; eta momentu inportanteetan banaturik egotea, inperialismoaren aurrean ahuldutarik egonez. Horretaz gain, bertan parte zeuden herrialde batzuen gehiegikeriak ez kondenatzea (Mombutu, Suhartok, etab. egindakoak), proiektu beraren kontra egiten zuen. Barne kontuetarako dena ez zuen balio beharko.

Noski, inperialismoaren erasoak beharrezkoak izan ziren proiektuaren amaierarako. Hauek estatu “zintxoak” (benetan Hirugarren Munduko proiektuaren helburuak lortu nahi zutena) eta ez hain “zintxoak” eraso eta ahuldu egin zuten. Hau eragin zuen botere eta tradizionalisten berpizkundea; zeinak biolentziak eta gabezi handiak sortuko zituenak. Sortu egin zuten munstro bat zeinak kontrolatu ezingo zutenak. Hau oso ongi ikusi egiten da musulman fundamentalistekin adibidez.

Dena den, proiektuaren atzoko (eta gaurko) porrotak, ez du esan nahi bidearen amaiera izango dela; agian etorkizuneko garaipena izango da. Baina ala ez bada, eta dena galdurik badago, molestatzekak beti geldituko zaigu.

BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK:

- Amin, Samir. *El fracaso del desarrollo en África y en el Tercer Mundo. Un análisis político*. Madril: Iepala, 1994.
- Del Alcazar, Joan. “América Latina en el Siglo XX”. En *Historia de América*, coord. Juan Bosco Amores Carredano, 801-856. Bartzelona: Ariel, 2012
- Fanon, Frantz. *Afrikar Iraultzaren alde*. Donostia: Lur, 1978.
- Meredith, Martin. *África. Una historia de 50 años de independencia*. Espainia: Intermon Ofman, 2011
- Prhashad, Vijay. *Las Naciones Oscuras. Una historia del Tercer Mundo*. Bartzelona: Península, 2012.
- Todaro, Michael P. *El desarrollo económico del Tercer Mundo*. Madril: Alianza Editorial, 1988.
- Villares, Ramón & Ángel Bahamonde. *Gaur egungo mundua. XIX. eta XX. mendeak*. Bilbao: Argitalpen zerbitzua EHU, 2004

ARTIKULUAK:

- De Olivera e Castro. Luis Felipe, “Socialismo africano: rebelión permanente”, *Revista de Política Internacional*, ISSN 0034-8716, Nº 94, 1967, 7-23 orr.
- Fabbri, Carlos Andres, “La política exterior de Cuba hacia América Latina, reflexiones en torno a la "exportación del comunismo"”, *América latina hoy: Revista de ciencias sociales*, ISSN 1130-2887, VOL. 6, 1993, 39-44 orr.
- Martin de la Escalera, Carmen, “La Conferencia de Bandung, sus conclusiones y su posible alcance”, *Revista de Política Internacional*, ISSN 0034-8716, Nº 22, 1955, 91-103. orr.
- Petras, James, “La construcción imperial y dominación: EE.UU. y Latinoamérica”, *Filosofía, política y economía en el Laberinto*, ISSN 1575-7161, Nº. 13, 2003, 8-34. orr.